Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra

948 13 22 22
948 01 20 12
012

ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

ANTSOAIN
ANSOÁIN
UDALA · AYUNTAMIENTO

DIRULAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOA, 2025an KULTURA, KIROL ETA FESTA JARDUERAK EGITEKO

OINARRIAK

1. XEDEA

Deialdi hau Antsoaingo Udalaren 2024-2029 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan dago (2025eko otsailaren 27ko NAOean argitaratu zen, 40. zenbakian), eta haren helburua da dirulaguntzak emateko araubidea ezartzea, Antsoainen dauden eta 2025ean kultura, kirol eta festa jarduerak egin dituzten kolektiboen ekintzak eta jarduerak sustatu eta babesteko.

Laguntza emanen zaie xede hauek betetzen dituzten jarduerei:

Kultur eta Festa arloan

- Kultur adierazpenaren modu ugariak bultzatzea (kultura eta elkartasuna, kultura eta generoa, kultura eta zientzia, kultura eta ekonomia, kultura eta euskal kultur tradizioa, kultura eta euskara, kultura eta natura) ohiko moduekin batera (musika, arte eszenikoak, arte plastikoak eta ikusizkoak, argazkigintza, herriko bestak eta ospakizun herrikoiak, eta gizarte-kultur sustapenerako programak).
- Antsoaindar guztiei kulturarako eta partaidetza kulturalerako ateak irekitzea, informazioaren eta ezagutzaren teknologia berriak barne.
- Berezko kultur balioak sustatzea eta nortasun kolektiboa errespetatzea eta eraikitzea, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasun printzipioan oinarrituz, gizartearen aniztasuna onartzetik abiatuta.
- Elkartegintza eta herritarren partaidetza sustatzea, gizarte eta kultur ehun aberatsa sortzea eta sektore baztertuen kultura bultzatzea.
- Kulturaren zeharkotasuna agerian jartzen duten proiektuen alde egitea.
- Berdintasunean oinarritutako sormenezko jarduerak, solidarioak, jasangarriak eta integratzaileak sustatzea, bai eta herritarren garapen pertsonala eta soziala bultzatuko duten bestelakoak ere.
- Herritarren parte-hartze parekidea handitu eta festak norberarenak direla sentitzeko jarduerak sustatzea, populazio sektore guztietan.

Kirol arloan

- Kirolaren praktika eta kultura fisikoaren garapena Antsoaingo biztanle guztiei zabaltzea, berdintasun baldintzetan eta batere bazterkeriarik gabe.
- Oinarrizko kirola eta jostetarako kirola bereziki bultzatzea, bai emakumeen artekoa bai gizonen artekoa.
- Kirol arloko elkartegintza sustatzea, kirol praktikaren zabalkuntzaren bizkarrezurra izan dadin.
- Antsoaingo kirola bultzatzea, eta orobat herrialde, nazio edo nazioarte mailan proiekzio gehien duten antsoaindar kirolariak.
- Kirolean emakumeak ikusaraztea, bai oinarrizko kirolean bai proiekzio gehien duten kiroletan ere.
- Udalaren kirol instalazioen erabilera arrazionalizatzea eta ahalik eta hobea bilakatzea.
- Kirolaren praktika osasungarritasun eta segurtasun baldintza egokietan egin dadin ahalegintzea.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira honako hauek:

- Laguntza jarduerak.
- Jarduera gastronomikoak edo antzekoak, kultur interes berezia ikusten ez bazaie, behintzat.
- Antsoaindik kanpo egiten diren jarduerak.
- Elkartearen edo taldearen gastu orokorrak edo mantenimendu gastuak (alokairua, telefonoa, argia, webgunea mantentzea etab.).

2. LAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK

2.1. Elkarte eta erakundeak

- Pertsona juridikoak izatea, legez eratuak eta Antsoaingo Elkarteen Udal Erregistroan edo Nafarroako Gobernuaren Elkarteen Erregistroan inskribatuak, dokumentazioa eguneratua dutela.
- Irabazi asmorik ez izatea
- Egoitza soziala eta fiskala Antsoaingo udalerrian izatea.
- Diruz lagunduko diren kultura, kirol edo jai jarduerak bai eta proiektuak ere Antsoaingo udalerrian garatzea.
- Salbuespen gisa, egoitza fiskala edo soziala Antsoainen ez duten eta legez eratuta dauden entitate, elkarte edo erakundeen proiektuak baloratuko dira, betiere diruz lagunduko diren proiektuak Antsoaingo udalerrian garatzen badira.
- Egunean izatea Nafarroako Gobernuarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak eta Antsoaingo Udalarekiko zerga-betebeharrak.
- Antsoaingo udalean aplikatu beharreko araudi guztia betetzea

2.2. Pertsona fisikoak, pertsona talde baten ordezkari, irabazi asmorik gabeko berariazko ekimen bat garatzeko

Taldeko kide guztiak Antsoainen erroldatuta egotea.

2.3. Programatutako jarduerak

Publikoak izatea eta Antsoaingo herritar guztientzat irekita egotea. Horretarako, udalaren titulartasuneko espazio publikoetan egingo dira, edo beharrezko baldintzak betetzen dituzten zentro pribatuetan; eta Antsoaingo biztanleei behar bezala iragarriko zaizkie euskaraz eta gaztelaniaz; gainera, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egingo da, bai hedapenean, bai edukietan.

Proiektuetan agertzen eta jasotzen diren datu guztiak sexuaren arabera bereizita egon beharko dira.

Jardueren programa udaleko Kultura Sailari edo Kirol Arloari jakinarazi beharko zaio, kasuan kasu, behar besteko denboraz eta datuekin, udaleko agendan eta webgunean argitaratzeko.

3. ESKABIDEA ETA JUSTIFIKAZIO-MEMORIA AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskaera eta justifikazio-memoria aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izanen da, deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Deialdi honetarako ezarritako eskabide-aldia amaitu ondoren garatuko diren jarduerak gainerako jarduerekin batera eskatu beharko dira, baina horien gastuak 2025eko urtarrilaren 15era arte justifikatu ahal izango dira. Epe horiek ezin izango dira luzatu.

Deialdi publiko hau Dirulaguntzen Oinarri Nazionalean argitaratuko da, eta horren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Interesdunek bide hauek erabiliz aurkeztu beharko dute eskabidea:

- Modu telematikoan, udalaren egoitza elektronikoaren bidez: https://sedeelectronica.ansoain.es
- Aurrez aurre, Antsoaingo Udalaren bulegoetan (Antsoaingo Udaletxe plaza 1), astelehenetik ostiralera, 8: 30etik 14: 00etara.

4. ESKABIDEAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Eskabidearen 1. fitxa, erakunde eskatzaile bakoitzeko edo pertsona-talde baten ordezkari den pertsona fisiko eskatzaile bakoitzeko (I. eranskina).
- 2. fitxa, dirulaguntza eskatzen den jarduera bakoitzeko (I. eranskina).
- Entitatearen ordezkariaren aitorpena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duena. Erakundea ez badago behartuta aitorpen horiek aurkeztera, egiaztapen hori erantzukizunpeko adierazpen gisa egingo da, zerga-aitorpenak aurkeztera behartuta ez dagoela eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrik ez duela adierazteko (II. eta III. eranskinak).
- Erakundearen ordezkariaren aitorpena, jasotako diru-sarrerek, kontzeptu guztiengatik, Antsoaingo Udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa barne, diruz lagundutako jardueratik eratorritako gastuak gainditu ez dituztela egiaztatzen duena (IV. eranskina).
- Transferentzia bidezko ordainketa-eskaera. Banku-erakundeak sinatutako agiria (V. eranskina).
- Egindako jardueraren memoria zehatza: egindako eta diruz lagundutako jardueraren edo jardueren deskribapena, parte-hartzaileen kopurua eta planteatutako helburuen ebaluazioa.
- Egindako jarduera bakoitzaren balantze ekonomikoa, jardueraren gastuak eta diru-sarrerak jasotzen dituen pertsona eskudunak sinatuta (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 30.4 artikulua).
  - **a.** Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren gastuen fakturak: fakturazio-betebeharrak arautzen dituen erregelamenduan xedatutakoari jarraituko zaio. Faktura horiek honako baldintza hauek beteko dituzte:
    - Jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak izatea.
    - Zenbakituta egotea.
    - Dirulaguntza eman den urtean datatuta egotea. Noizbehinkako jarduera bada, fakturaren data jarduera egin zeneko data izan beharko da.
    - Fakturak egin behar dituen pertsonaren edo erakundearen eta eragiketen hartzailearen izen-abizenak, izena edo izen sozial osoa.
    - Faktura egin duen pertsonaren edo erakundearen IFZ.
    - Faktura egin behar duen pertsonaren edo erakundearen eta eragiketen hartzailearen helbidea.
    - Kontzeptua eta zenbatekoa.
    - Aplikatutako zerga-tasa (BEZ). Jasanarazten den zerga-kuota, hala badagokio, bereiz adierazi beharko da (zerga-tasa aplikatzetik ateratzen den zenbatekoa, BEZgatik ordaintzen dena).
    - Eskabidean adierazitako aurrekontura egokitzea.
    - Fakturak behar bezala ordenatuta eta batuta aurkeztuko dira, jarduera-motaren arabera multzokatuta.
  - **b.** Faktura edo dokumentu horiek ordaindu izanaren frogagiriak.
  - **c.** Justifikazio-aldia amaitu aurretik ordaindu ezin izan diren fakturak berariaz aipatzea.

d. Jarduera bakoitza herritarren artean zabaltzeko erabiltzen diren liburuxken, kartelen edo bestelako publizitate-euskarrien kopiak.

e. Diruz lagundutako proiektuak finantzatzeko lortutako diru-sarrera guztien egiaztagiriak.

Deialdi honen oinarriak eta lehen aipatutako dokumentazioa (fitxak) Udaleko Herritarren Arretarako Bulegoan eta Udalaren web orrian (www.ansoain.es) eskuratu ahal izango dira.

5. BALORAZIOA

Balorazioa balorazio batzorde batek egingo du. Batzorde hori udal taldeetako ordezkariek eta kultura eta kirol arloetako teknikariek osatuko dute.

Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

Proiektua edo jarduera baloratzeko irizpide orokorrak

1. Proposamenaren koherentzia helburuei, jarduerei eta aurrekontuari dagokienez
2. Proposamenaren berrikuntza eta sormena
3. Jardueraren xede diren pertsonen kopurua
4. Erakundearen lankidetza Antsoaingo Udalaren kultura- eta kirol-programekin
5. Interes bereziko kolektiboei zuzendutako proiektua edo jarduera
6. Honako hauek sustatu eta sustatzea:
   - Kulturen arteko ezagutza eta harremana.
   - Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunezko harremanak.
   - Ingurumen-iraunkortasuna.
   - Euskararen erabilera.
7. Proiektuaren elkarte arteko edo diziplina arteko izaera

Balorazio batzordeak egindako eskaerak aztertu eta dagokion irizpena eman ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak 2025ko abenduaren 31 baino lehen ebatziko ditu parte hartzeko eskaerak.

Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, dirulaguntza ezetsi egin dela ulertuko da.

6. EBAZPENA ETA ORDAINKETA

Tokiko Gobernu Batzarra da organo eskuduna deialdiaren oinarriak onartu, argitaratu, zuzendu, luzatu edo baliogabetzeko eta dirulaguntzak eman edo ukatzeko, bai eta horien zenbatekoa zehazteko ere, dagokion Batzordeak txostena egin ondoren.

Emandako zenbatekoa ezin izango da izan jarduera bakoitzeko diruz laguntzeko modukotzat jotzen den **aurrekontuaren %70 baino handiagoa**, eta inola ere ezin izango da izan **2.250 € baino handiagoa** erakunde bakoitzeko.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ordainketa bakarrean ordainduko da, banku-transferentzia bidez.

Dirulaguntzak Udalaren Iragarki Taulan eta Udalaren Web Orriaren Egoitza Elektronikoan argitaratuko dira.

7. BETEBEHARRAK

- Helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo dirulaguntzaren oinarrian dagoen jokabidea hartzea.
- Udalari jakinaraztea diruz lagundutako programen garapenean izandako aldaketa garrantzitsuak.

- Diruz lagundutako jarduerak eta programak zabaltzeko erabilitako propagandan, formatua edozein dela ere, bai gaztelaniazko euskarrian bai euskarazkoan, Antsoaingo Udala aipatuko da, betiere VI. eranskinean zehazten den moduan.
- Betekizunak eta baldintzak betetzen direla, jarduera egin dela eta dirulaguntza ematea edo baliatzea eragin duten helburuak bete direla justifikatzea.
- Udaleko organoek egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartzea, eginkizun horiek betetzean eskatzen zaien informazio guztia emanez.
- Antsoaingo Udalari jakinaraztea beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortu badu diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsen erabilera justifikatu aurretik
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu ahal diren neurrian.

Oinarri hauetan xedatu gabekoari dagokionez, honako hauetan xedatutakoa beteko da: Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra, 2008ko uztailaren 14ko 86 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua; Antsoaingo Udalaren eremuan Euskararen Erabilera eta Sustapena arautzen duen Ordenantza, 2000ko ekainaren 16ko 73 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua; eta Antsoaingo Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Ordenantza, 2019ko uztailaren 11ko 134 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua.

8. EZ-BETETZEAK

Dirulaguntzen Ordenantzan eta deialdi honetan ezarritako betebeharrak eta zehaztapenak betetzen ez badira, dirulaguntza itzuli egin beharko da. Dirulaguntza ematen duen organoak emango du, aldez aurretik espedientea izapidetu ondoren. Espediente horretan, zentro kudeatzailearen proposamen arrazoituarekin batera, dagozkion txostenak eta frogak aurkeztuko dira, eta, hala badagokio, erakunde onuradunaren alegazioak. Espedientea hiru hilabeteko epean ebatzi beharko da.

9. LAGUNTZEN ZENBATEKOA, AURREKONTU-IZENDAPENA.

Deialdi honen xede diren laguntzak Antsoaingo Udalaren 2025ko ekitaldiko gastu-aurrekontuko 1-23991- 4820015 gastuen partidaren kontura finantzatuko dira. Partida horren zuzkidura erabilgarria 15.200,00 eurokoa da, eta honako arlo eta zerbitzu hauek hartzen ditu barnean:

Kultura Arloa

Jai-eremua

Kirol Arloa

10. EBAZPENA JAKINARAZTEA

Dirulaguntza emateko ebazpena honako bide hauen bidez argitaratuko da: Antsoaingo Egoitza Elektronikoaren iragarki-taula eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionala (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2 artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, aipatutako lege-testuaren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera).

11. ARAUDI ERREGULATZAILEA

Deialdi hau dokumentu honetan jasotako oinarrien arabera arautuko da, eta bertan aurreikusten ez denerako, araudi honetan ezarritakoaren arabera:

- Antsoaingo Udalaren 2025ko aurrekontua gauzatzeko oinarriak.
- Antsoaingo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra.
- Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legea

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua (Erregelamendua).
- 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa, eta, osagarri gisa, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorra.